## I. ERANSKINA
## ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA EGITEKO TXANTILOIA
## ANEXO I
## PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA ANUAL DE ÁREA O MATERIA

### 2016-17 Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa
### *Programación didáctica anual/de curso 2016-17*

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ikastetxea:** *centro:* | IES URIBEKOSTA BHI (Plentzia) | **kodea:** *código:* | 015143 |
| **etapa:** *etapa:* | DBH | **zikloa/maila:** *ciclo/nivel:* | 3. kurtsoa |
| **arloa/irakasgaia:** *área / materia:* | Plastika | | |
| **osatutako arloak/irakasgaiak** *materias integradas/ áreas* | Arte eta kultura-konpetentzia<br>Gaitasun digitalak | | |
| **diziplina barruko oinarrizko konpetentzia elkartuak** *competencias disciplinares básicas asociadas* | Komunikazio linguistiko eta literariorako gaitasuna.Kultura kontzientzia eta adierazpenak. Gaitasun matematikoak eta zientzia gaitasun basikoak. Teknologia gaitasunak. Hiritartasun eta gizarte konpetentziak.Iniziatiba eta enpresa-sortzaile espiritua. | | |
| **irakasleak:** *profesorado:* | Begoña Elorrieta, Graciela Badosa | **ikasturtea:** *curso:* | 2017/2016 |

Zeharkako konpetentziak / *Competencias transversales*:

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
3. Elkarbizitzarako konpetentzia
4. Ekimenerako eta ekiteko espirituarako konpetentzia
5. Norbera Izaten ikasteko konpetentzia

| **helburuak** *objetivos* | **ebaluazio-irizpideak** *criterios de evaluación* |
|---|---|
| 1. Arte-hizkuntzen oinarrizko teknikak, baliabideak eta konbentzioak ondo samar ezagutzea eta erabiltzen jakitea, teknologia berriek sormen-lanetarako ematen dituzten aukera ugariak aprobetxatzea, teknologia horiek artelan konplexuak diseinatzeko eta garatzeko erabiltzea, eta kultura bisualean nagusi diren lan eta adierazpenetan identifikatzea eta balioestea. | 1. **Bilaketarako jarrera izatea, eta horretan, pertzepzioa, jakin-mina eta sentsibilitatea artikulatzea, erantzun tekniko eta formal egokiak emateko.**<br>Loturak egiten ditu arte-ekoizpenen eta beren adierazpenerako eta/edo komunikaziorako xedeen artean./Irudien pertzepzio-prozesuko elementuak eta faktoreak identifikatzen ditu (Geltast legeak, ilusio optikoak, etab.)./ |

| | |
|---|---|
| 2. Gure kulturan diseinuarekin, ikus-entzunezko euskarria duten hedabideekin, eta objektu nahiz formen adierazpen-sistema teknikoekin lotutako ekoizpen artistiko-estetikoko gune eta esparruen berri jakitea, eta horien kode espezifikoak ondo ulertzea, mota horretako arte-adierazpenak kritikoki aztertzeko eta espresio- eta komunikazio-baliabidetzat erabiltzeko. | Prozeduretan egoki diren euskarriak, materialak eta tresnak identifikatzen eta konbinatzen ditu arte-produkzioetan./ Proiektuaren komunikazio edo adierazpen-xederako egokiak diren euskarriak, prozedurak eta materialak erabiltzen ditu./ Prozesuak eta materialak probatzen ditu, teknologia baliatu gabe edo teknologia baliatuta, bere artelanak egokitasunez osatzeko. |
| 3. Emozioak, sentimenduak, bizipenak, ideiak, eta natura nahiz kultura-inguruneko espazio, objektu eta elementuak adierazteko balio duten obra artistiko-estetikoak sortzea, eta horretan, komunikazio-gaitasunean, pentsamendu kritikoan eta autokonfiantzan aurrera egitea. | **2. Arte-ekoizpen berean zenbait hizkuntzaren artean jazotzen diren interakzioei igartzeko gai izatea, eta aintzat hartzea hizkuntza horietako bakoitzak komunikazioari egiten dion ekarpena.** Hizkuntzen konbinazioak dakartzan aukerak ikertzen ditu bere artelanetan./Artelanetan eta kultura bisualeko produktuetan hizkuntza askotarikoen baliabideak erabiltzeak sortzen dituen eraginak aztertzen ditu. |
| 4. Bilaketa, irudimena, baliabide bisualen sormenezko manipulazioa eta antzeko beste trebetasun batzuetan oinarrituta, eta ikuspuntu estetiko bati eutsiz, inguruko objektuak transformatzea, egoerak problematizatzea eta konponbide ugari proposatzea. | **3. Geometriak arteari eta errealitatearen irudikapenari ematen dizkion aukerak ulertzea eta arakatzea, eta bere arte-ekoizpenetan geometria erabiltzea.** Kulturek beren produkzioetan geometria nola erabili duten ikertzen du. /Formak eratzeko arazoen irtenbide grafikoa topatzen du, geometria-eraikuntza oinarrizkoak erabilita./Bere lanetan, transformazio geometriko oinarrizkoak –translazioak, simetriak, errotazioak, etab.– erabiltzen ditu, / Egoki erabiltzen ditu geometria-trazaduren berezko tresnak eta prozedurak. |
| 5. Bakarka nahiz modu kolektiboan proiektu artistiko baten gaineko plangintza egitea, eta, gero, prozesu horri buruz gogoeta egitea, lortu nahi den horretan intentzioak, fase bakoitzaren berrikusketak eta emaitzen ebaluazio kritikoak duten garrantziaz ohartzeko, eta hori guztia dela eta, talde-lana arduraz, tolerantziaz eta besteen iritziekiko errespetuz egin beharra aintzat hartzea. | **4. Arte -adierazpen- eta lan aplikazio-eremuen bereizgarri eta desberdintasunak ulertzeko gai izatea.** Garaiko artearen kultura-testuinguruko eremu profesionalak bereizten ditu. **5. Bere komunikazio-asmoekin bat datozen baliabide plastiko eta bisualak erabiltzeko eta zenbait mezu sortzeko gai izatea.** |
| 6. Produktu estetikoek pertsonen eta gizarteen bizitzan izan dituzten eta dituzten funtzio eta erabilerak ulertzea, eta korronte estetikoen, moden eta gustuen bilakaeraz eta oparotasunaz | Erantzun artistiko arrazoituak ematen dizkie eguneroko bizitzako gai eta arazoei/Bere mezu propioak igortzeko, arrazoiz erabiltzen ditu elementu, prozedura eta baliabide plastiko eta bisualak./Baliabide plastiko eta bisualen aukerak ikertzen ditu, estereotipoak |

| | |
|---|---|
| jabetzea, horiek guztiek gure balioetan eta munduari nahiz gizakiari buruzko ikuskeretan zer-nolako eragina duten ulertzeko.<br><br>7. Artea herri eta kulturen ondare eta identitatearen parte dela aintzat hartzea, eta, ondare oparo hori babestea eta sorberritzea helburu hartuta, eta elkartrukeak dakarren aberastasunaz jabetuta, kulturen arteko elkarrizketak eta herrien konpartitzen dituzten esperientzia artistikoek egindako ekarpen ugariekiko interesa izatea.<br><br>8. Norberarenaz eta gure inguruan nagusi direnez bestelako espresiobide estetikoak errespetatzea eta aintzat hartzea, eta malgutasunez, solidaritatez, interesez eta tolerantziaz jokatzen ikasteko. | gaindituz./Komunikazio-xedera doitzen ditu sortzen dituen irudiak –bozetoak, apunteak, azterketak, etab.–/Bere artelanei zentzua ematen dieten baliabide plastikoen eta bisualen erabilera arrazoitzen du./Baliabide plastiko eta bisualak planoan eta espazioan antolatzeak dakartzan arazoak ebazten ditu./ itu./Eskemen edo bozetoen bidez ikusarazten ditu bere proposamenen emaitzak./Hainbat kontzeptu darabilki bere artelanetan: argi-itzalak, tonu-balioak, egiturak...<br>**6. Bere proiektu artistikoak egiten ari dela, zenbait soluzio eta estrategia bilatzeko gai izatea, eta horretan, aintzat hartzea kultura bisualak bere-bereak dituen arazo eta elementuak.**<br>Material eta teknika askotarikoak erabilita lor daitezkeen esanahi bisual ugariak bereizten ditu./Alternatibak bilatzen ditu bere adierazpeneko eta komunikazioko prozesuetan./Mezu bisualen elementuak aldatzen ditu eta, horien bidez, baita haien esanahiak ere./Arte bisualen baliabideak ikertzen ditu, behar bezala justifikatuta./Arazoei aurre egitean, haiek ebazteko aukera asko hartzen ditu kontuan./Baliabideak manipulatuz lor daitezkeen esanahi ugariez jabetzen da/.<br>Bere lanetara eramaten ditu beste pertsona batzuek beren lanetan erabili dituzten soluzioak/Ingurumena zaintzeko interesa adierazten du, eta adierazpen-ezaugarriak bilatzen ditu ohikoak ez diren materialetan/Birziklatutako materialen adierazpen-aukerak ezagutzen ditu.<br>**7. Egiten ari den proiektuaz gogoeta egiteko gai izatea, eta horretan, modu kontzientean parte hartzea taldean, bai lana antolatzen eta bai prozesuko urrats guztiak egiten.**<br>Taldean parte hartzen du, besteren adierazpenak eta ekarpenak errespetatuta/Bere gain hartzen du dagokion lana./Antolamendu-estrategia egokiak erabiltzen ditu bere lan-prozesuetan eta aintzat hartzen du prozesuaren ebaluazioa/Taldeko jardueretan eta lanetan laguntzen du, eta adostutako erabakiak iristen ahalegintzen da./Badaki zer-nolako garrantzia duen eta izan duen talde-lanak historian zehar proposamen artistikoak lantzeko/ |

| | |
|---|---|
| | **8.Artelan eta irudien ekoizpenean faktore sozialek duten garrantziaz jabetzeko gai izatea, eta horretan, kritikoki aztertzea botereak, generoak, ideologiak eta bestelakoek artean duten eragina:**<br>Proiektuak antolatzen eta lantzen ditu obra jakin baten sorburuan dauden edo obra horretan adierazten diren gizarte-harreman askotarikoak ezagutu eta aztertzeko./<br>Artelanak egiten ditu ingurunearekiko ageri dituen kezka sozialei erantzuteko./Ikuspegi kritikoz egiten die aurre zenbait irudi eta ekoizpen artistikok sustatzen dituzten manipulazio eta diskriminazioei./<br>**9. Historian zehar arteari eta artistari buruzko ikuskeretan izandako aldaketak identifikatzea, eta aldaketa horietan eragina duten faktore sozial eta kulturalen gaineko kontzientzia izatea.**<br>Gure kulturan artearen eta artisten gaineko ikuskerek bizi izan duten aldaketa handiak identifikatzen ditu./Artistek garai eta kultura askotarikoetan landu dituzten formen gaineko talde lanak osatzen ditu./Ingurunean dituen artisten lan egiteko moduak ezagutzeko interesa erakusten du.<br>**10. Arte- eta kultura-adierazpenak hango eta hemengo kulturen ondarearen eta identitatearen parte direla ohartzea eta hargatik balioestea.**<br>Loturak ezartzen ditu arte-adierazpenen eta haiek egiten dituzten talde kulturalen artean./ Euskal artistak eta haien lanak ezagutzen ditu eta dagozkien une historikoekin lotzen ditu./Inguruko jarduera artistiko eta kulturalak ezagutu eta horietan parte hartzeko interesa ageri du./Beste kultura batzuen eraginak ematen ditu inguruan dituen Euskal Herriko produktu estetikoetan.<br>**11. Gurean ohikoak ez diren arte-adierazpenak ezagutzeko interesa izatea eta arte-adierazpen horien ezaugarriak ulertzeko gai izatea.**<br>Jakin-mina eta errespetua adierazten ditu gainerako pertsonek adierazteko eta jarduteko moduekiko eta haien jokamolde estetikoekiko./Irtenbide bat baino gehiago proposatzen ditu arazo batentzat, beste pertsona batzuek egindako lanak aztertu ondoren. |

**EDUKIEN SEKUENTZIA** [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta…].

***SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS*** *[organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje…].*

Programazio honetan edukien lau multzoak kontuan hartuko dira ebaluazio bakoitzean: Eduki komunak ( zehar-konpetentziekin lotutako edukiak), Arte-hizkuntzen baliabide eta konbentzioak, Sormen-prozesu, teknika eta formak, eta Artean eta kultura bisualean erreferente estetikoak diren lanak ulertzea eta interpretatzea.

1. EBALUAZIOA:

Materialak etaTeknikak:monokromia,polikromia

1. Irudi adierazkorrak sortzea.
2. Marrazketa geometrikoak eta haren aplikazioak.
3. Irudiak interpretatzea.(logotipo, marka)

2. EBALUAZIOA:

Kolorea.

1. Koloreen nahasketak.
2. Kolorearen teoria: beroak, hotsak eta osagarriak. Kontrastatuak Armonia
3. Koloreztatzeko teknika desberdinak:Collage,Montaiak , puntillismo,kartelak…
4. Estilo piktoriko ezberdinak
5. Irudien interpretazioa,artean.

3. EBALUAZIOA

1. Planoan espazio- efektuak sortzea.
2. Objektuak planoan irudikatzea.
3. Perspektiba konikoa.
4. Portafolio karpeta egitea.

Arazo egoera

**METODOLOGIA** [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna… ikuspegi inklusibo batetik].

***METODOLOGÍA*** *[organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado… desde una perspectiva inclusiva].*

1. Eguneroko lana da nagusi.
   - Ikaslea bere ikasketa prozesuaren protagonista da; bai irakaslea bai materiala laguntzaile hutsak izango dira.
2. Koadernoa ebaluaketa bakoitzean aurkezten da. Eta gainditzeko lan guztiak aurkeztu beharko dira. Lanak bukatuta eta zuzenduta egon behar dira.
3. Ikasketa gaurkotuak sustatzea. Horretarako ondoko puntuak jarraituko dira:
   - Eduki berriak gaurkotuak izango dira.

- Ikasitakoaren funtzionalitatea bilatuko da.
- Ikaslearen motibazioa eta jarrera baikorra, aurreko ezagutza eta berriaren arteko lotura ezartzeko, ezinbestekoak izango dira.

4. Taldekako nahiz bakarkako lanerako ohitura lortzea norberaren konfiantza, zentzu kritikoa, interesa eta sormena bultzatuz.

5. Autonomia bultzatzea: ikasleak edukiak barneratzea lortzeaz gain, gure helburua ere ikasitakoa besteei transmititzeko gai izatea da.

6. Ordenagailua erabiliko dugu: lan koadernoko informazioa Internet bidez indartu, eta zenbait lan egiteko. Noizean behin, beste euskarri bat erabiliko da.

7. Ariketen zuzenketa, hauek egin bitartean edota bukatzerakoan banakakoa izango da. Egindako zuzenketak, ikasgela osoarentzako hobetze-tresna badira, altuan esango dira.

8. Ikasleek ekarri behar dute marrazketako koadernoa eta oinarrizko materiala (arkatza, borragoma, zorrozkailua, erregela, eta orriak). Ariketaren arabera, material espezifikoa beharko dute (kolore arkatzak, errotuladoreak, artaziak, kola, konpasa, eskuaira eta kartaboia), aparteko materiala gelan izango dute.

9. Saioa amaitzean materiala garbitu beharko dute. (Beraien esku utziko dut antolaketa).

10. Gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko beren beregiko atazak egingo dira. Ataza horiek prestatzeko formakuntza lan saio batzuk antolatuko dira bertan landutakoa 3. Ebaluaketan zehar ikasgeletan gauzatuko da.

Arazo egoera: Institutuko proiektuekin lotuta edozein kanta- olerkia- musikan oinarrituz: burutzea kartelak , komikiak, edo collageak estilo piktoriko desberdinki aztertuz “Las 4 estaciones de Vivaldi”, Gatiburen kanta, Ken7ren kanta.

**BALIABIDEAK**

Plastikarako gela berezia izango dugu (Konketa dago bertan besteak beste)

Ikasleak edukiak bilatuko ditu material didaktiko eta ahozko azalpenen bitartez: arbela, ordenagailua, proiektorea, arbela digitala, bideoak edo aurkezpenak, programa informatiko desberdinak, liburuak, fotokopiak, internet .... tresnak izanik.

| **EBALUAZIO-TRESNAK** [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, | **KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK** [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa] |
|---|---|

<table>
<tr>
<td>behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoa, portfolioa, kontratu didaktikoa…]<br><br>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico…].</td>
<td>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</td>
</tr>
<tr>
<td>EBALUAZIO TRESNAK<br><br>1. ATALA: IKASLEAREN EKOIZPENAK<br><br>• Lan-koadernoa<br>• Zirriborroak<br>• Aparteko lanak<br>• Klaseko apunteak<br>• Ahozkoak klasean<br><br>• Lan bakoitza 1 eta 10 puntu bitartean kalifikatuko da.<br>• Ikasgaiaren nota orokorra lan guztietan lortutako kalifikazioen arteko batezbestekoa izango da.<br>• Batezbestekoa egiteko, eskatutako lan guztiak gaindituta egon beharko dira ezarritako epean.<br>• Derrigorrez denean azterketa bat egingo da.<br><br>2. ATALA: BEHAKETA SISTEMATIKOA.<br><br>EGUNEROKO BEHAKETA:<br>ahalegina, aurrerapena, ikasitakoaren erabilpena irakaslearen koadernoan eta kontrol orriak<br>• Gelan behaketa zuzena.<br>• Gelan egindako lanak.<br>• Etxean egindako lanak: materialak, irudiak, adibideak...bilatzea, bozetoak egitea...<br>• Ebaluaketa bakoitzeko lanak.<br>• Nola antolatzen duten lana eta taldea. Prozesuen fase ezberdinak.</td>
<td>KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK<br>LAN KOADERNOA:<br>EDUKIAK%20<br>• Kontzeptuak bereganatu eta ulertu.<br>• Hiztegi teknikoa egokia erabiltzen du<br>• Planteatutako proposamenenei erreferentzia egiten die<br>• Arte lana egiteko fase bakoitzean plangintza egiten du<br>• Lanen ideiaren azalpenak eta arrazoinamendua<br>• Marrazketa ezagutza iturri eta pentsatzeko beharrezko lanabes gisa onartzen du.<br>• Eduki guztiak aurkeztu<br>• Autonomia eta erabakiak hartzeko gaitasuna<br>PROZEDURAK%60<br>• Trazado geometrikoak erregelaz, eskuairaz, kartaboiaz eta konpasaz.<br>• Teknika, materiala eta prozedura grafiko plastikoak erabiltzen ditu.<br>• Irudikapen sistemak erabiltzen ditu.<br>• Lana egiteko orduan txukuna, zehatza eta garbia izatea, kalitate eta garbitasun minimoa.<br>• Ordenaz eta garbitasunez lan egin<br>JARRERA%20<br>• Interesa adierazi<br>• Epe barruan entregatu<br>• Ikasleak bere ikaskide eta ikasgaiarekiko dituen jarrera<br>• Irakaslearen azalpenak arretarekin entzun, apunteak hartu eta ulertu.<br>• Klasean parte hartzea.<br>• Gela eta materialak zaintzea eta garbi mantentzea.<br>• Materiala klasera ekartzea<br>• Txanda errespetatu<br>• Eguneroko lana, asistentzia, puntualitatea.<br><br>HUTSEGITEEI DAGOKIONEZ, INSTITUAN ONARTUTAKO ARAUA</td>
</tr>
</table>

| | |
|---|---|
| | APLIKATUKO DA. KLASERA ETORTZEA DERRIGORREZKOA DA. |

| KALIFIKAZIOAEN BALIO PORZENTUALA | KONZEPTUAK %20 | PROZEDURAK %60 | JARRERAK % 20 |
|---|---|---|---|

**EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekuperazio-sistema...].**

***CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN** [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].*

Ebaluaketa gainditzeko lan guztiak aurkeztu behar dira (%100).
Lan bakoitzaren atalak eta gutxiengoak gaindituta egon behar dira. Irakasleak finkatuko du atal bakoitzari emandako balioa, aurreko irizpideak kontuan edukita.
Ikasgaiaren bukaerako nota 3 ebaluazioen bataz bestekoa egiten lortuko da (hiru ebaluaketak gaindituz gero). Ikaslearen progresioa ere kontuan izango da.

**BERRESKURAPEN SISTEMA**

Berreskurapena ebaluazio bakoitzean edo ikasturte bukaeran egiten da:
-Ebaluaketa bat errekuperatzeko. Ebaluaketaren ekoizpena berriro aurkeztea ( gainditu ez diren laminak, txarto, bete gabe edo egin gabe egoteagatik) ebaluazio positiboa edukitzeko. Helburu minimoak lortzen ez baditu eskaintzen diren praktika lagungarriekin errekuperatuko dira.
Notak jaso ondoren aste bat daukate aurkezteko. Denak entregatzen badira eta ondo egoten badira bere nota 5 izango da.

.

-Ez-ohikoan: gainditu gabekoek ikasturtean zehar proposatutako lanak aurkeztu eta azterketan aurkeztu beharko ditu. Epea ekainean, jarritako datan, izango da.
-Gainditu gabeko ikasleek aurreko urteko ikasgaia errekuperatzeko, lan batzuk egin behar dituzte eta azterketa gainditu behar dute. Gainditzen badituzte eta lehenengo ebaluaketa ere gaindituta egoten bada, errekuperatuko dute ikasgaia. Horrela ez bada, eta lehenengo ebaluaketa gainditzen badu, nota gordeko dugu, errekuperatu arte.

- 1. deialdia. Kurtsoaren hasieran, urrian.
- 2. deialdia. Ez-ohiko Plastika azterketaren egunean.

**INDARTZE SISTEMA** (Ikasketa prozesuan era egokian jarraitzeko zailtasunak dituzten ikasleentzat)
Eskakizun-maila egokia eskatuko zaie.
Lan egiteko orduan ikaskide edo talde egokiak egingo dira.
Irakaslearen banakako arreta emango zaio ikasleari. Ulertu ez duen hura, berriz azalduko zaio, klasean, besteak beste ariketa bat egiten dauden bitartean.
Beharrezkoa izaten bada, indartzeko jarduerak burutuko dira.

OHARRAK / ***OBSERVACIONES***

Erreklamazio bat sortzen bada, ikaslearen azterketa edo lanak mintegiko irakasleek baloratuko dituzte.